

Hego Euskal Herriko Frankismoko eskola-kulturak eskola-koadernoetan, 1936-1975. Eskola nazionalkatolikoaren, euskal etxe-eskolen eta Errenderiko Ikastolaren konparaketa

Tesiaren egilea: Peio Manterola Pavo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Hezkuntza Zientziak

Doktorego-programa: Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea

Jakintza-arloa: Hezkuntzaren historia

Tesi-zuzendaria: Luis María Naya Garmendia eta Hilario Murua Cartón

Tesiaren laburpena:

Tesi honek Frankismoko Hego Euskal Herriko hiru eskola-kultura aztertzen eta alderatzen ditu: erregimen frankistari atxikitako eskola nazionalkatolikoa; Elbira Zipitriaren altzoan antolatutako euskal etxe-eskolek osatutakoa; eta ikastolen mugimendukoena, ikerketa honetan Errenderiko Ikastolak ordezkatzeko duena.

Lanaren xedea, eskola-koadernoetan ageri den diskurtsoa analizatuz, eskola-kultura bakoitzak eratu nahi zituen subjektu moldeak interpretatzea eta ezagutzea da. Finean, ikasleek eraturako kaierak ikasgeletako lanketetara, gertakarietara eta, bereziki, hauetan zirkularazten zen ideologia-diskurtsora hurbiltzen gaituzte. Ezaugarri horiek dira, hain justu, kaierak lehen mailako iturri historiografiko bilakatu dituztenak.

Helburu nagusia erdieste aldera, lehenik, materiala interpretatzeko funtsezkoa den marko teoriko-kontzeptual bat eskaintzen da. Bertan, hasteko, hezkuntzaren historiaren joera eta iturri berrietan murgiltzen da lana, koadernoek historiografian duten tokia kausitu eta metodologikoki jorra daitezkeen ildoak zehazteko. Jarraian, koadernoaren gotorleku izanen diren hezkuntzaren museoetan egiten den lana azaltzen da, kaieren interpretazioa bera museologiaren parte ere badelako. Gero, eskola-koaderno kontzeptuaren karakterizazioan eta kaier ezberdinek izan ditzaketen ezaugarrietan murgiltzen da ikerketa. Atala ixteko, eskola-kulturen tasunak eta horien diskurtsoak subjektuen eraketan duen tokia sakonki teorizatzen dira.

Erabilitako metodo orokorrari metodo historiko-pedagogikoa deritzo. Alabaina, azken hau, historia kulturalaren, historia konparatuaren eta, batez ere, hezkuntzaren ondare historikoaren azterketaren arteko uztarketarekin hornitu da. Tesia burutzeko, guztira, 412 koaderno aztertu dira, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Material gehiena EHuko Hezkuntzaren Museotik eskuratu da, eta bildumako 247 kaierak eskola nazionalkatolikoetan, 137k etxe-eskoletan eta 28k Errenderiko Ikastolan dute berezko jatorria.

Iturri teorikoei nahiz artxibokoei esker, Euskal Herriko Frankismoko gizarte-zein hezkuntza-egoerak behin behatuta, eskola-koadernoek, beren azalak, beren arkitektura, eskoletako hautu nahiz joera linguistikoak, identitatearen eraketara zuzendutako diskurtsoak, eta eskola-errituak aztertu eta alderatu ahal izan dira. Bost dimentsio horietan, eskola-kultura bakoitzak bere subjektu propioa eratu nahi zuela hauteman da. Eskola nazionalkatolikoan, adibidez, frankismoaren balioekin bat egiten zuen subjektu diziplinatua kausitzen dugu. Aitzitik, etxe-eskoletan, subjektu kristau, abertzale-esentzialista, eta are independentziazale batekin topa gaitezke. Errenderiko Ikastolako subjektua, aldiz, komunitarioagoa dela esan dezakegu, euskaltzalea izateaz gain, bere izatearen erdigunetzat ikastolak ordezkatzan duen kolektiboa jotzen baita, betiere talde hurbil hori probestuz euskal identitate berri batera bide egiten dabilena.

Honaino helduta, ondoriozta daiteke koadernoen bidez eskola bakoitzaren ideologia, balioak eta identitate-eraketa prozesuak azaleratzen direla. Halaber, kaierak erabilia, taxuz konpara daitezke eskola bakoitzak beren ikasleei zegokienez zituen jomuga ideologikoak.